IRAGARKIA

**Akats zuzenketa**

Akats bat hauteman da 56. zenbakiko 2003ko martxoaren 21eko «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratutako iragarkian (lan kontratu finkoko langileak funtzionari bilakatzeko aukeraketa probak). Bertan, bigarren atalean, Hautagaiek bete beharrekoak izenekoan, f)zatian, «izaera ez zehaztua duen lan erlazio bitartez» esaten duen tokian, «izaera finkodun lan erlazioa» esan behar du.

Testuaren gainerakoa argitaratu bezala geratzen da.

Balmasedan, 2003ko apirilaren 8an.—Alkatea, Joseba Zorrilla Ibáñez

(II-2.067)

•

ANUNCIO

**Corrección de error**

Detectado un error en el anuncio publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de fecha 21 de marzo de 2003, n.º 56 (pruebas selectivas para la funcionarización de personal laboral fijo), en el apartado segundo, Requisitos de los aspirantes, apartado f) donde dice «mediante una relación laboral de carácter indefinido» debe de decir «una relación laboral de carácter fijo».

El resto del texto queda en las mismas condiciones publicadas.

En Balmaseda, a 8 de abril de 2003.—El Alcalde, Joseba Zorrilla Ibáñez

(II-2.067)

•

## Lekeitioko Udala

IRAGARKIA

Udalbatza Osoak, 2003ko otsailaren 13an egindako aparteko batzarrean onartu zuen Lekeitioko Udaleko Kultur Erakundearen (LUKE) estatutuak aldatzeko testu berriari hasierako onarpena ematea.

Bertan akorduan onartu zen gainera, honen konturako iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»en argitaratzea, 30 laneguneko epea emanez herritarrek beronen kontrako azalpenak egin zezaten eta ez balitz inolako alegaziorik aurkeztuko LUKEko estatutuak aldatzeko testu berria behin-betiko onartuta geldituko zela.

Iragarkia 2003ko martxoaren 7ko «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»en argitaratu zen eta aipatutako epea iragan ondoren ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, Lekeitioko Udaleko Kultur Erakundearen (LUKE) estatutuak aldatzeko testu berria behin-betiko onartuta gelditu da.

### LEKEITIOKO UDAL KULTUR ERAKUNDEAREN (ESTATUTUAK)

I. KAPITULUA

**HELBURUA, IZAERA ETA FUNTZIOAK**

**1. artikulua**

Lekeitioko Udal Kultur Erakundeak (LUKE) Zerbitzuetarako Udal Erakunde Autonomoaren egitura hartzen du eta izaera administratiboa izango du. Honelako Lege eta Dekretuan oinarritzen da egitura hori hartzeko:

— 7/1985 Legeak (apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena) 85 eta 86 artikuluetan ezartzen duena.
— Dekretuak (1955eko ekainaren 17koa, Toki Erakundeetako Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena) 85 eta hurrengo artikuluetan ezartzen duena.

Erakundeak nortasun juridiko propioa du eta zuzenbidezko eta jarduteko gaitasun osoa.

**2. artikulua**

LUKEk honako helburu nagusiak ditu:

1. Lekeitioko udalerriko kultur aktibitateak bultzatzea. Horretarako egiten diren ahalegin eta ekimen guztiak koordinatuko ditu, udalak legez dituen ahalmenen kalterik gabe.

2. Behar diren gestio guztiak egitea, edonongo laguntza ekonomikoak lortzeko, kultur aktibitateak finantziatzen erabiliko direnak.

**3. artikulua**

Estatutu hauek ezartzen dutenaren bidez zuzenduko da LUKE eta Lekeitioko Udalaren babespean egongo da. Udalak zain-

## Ayuntamiento de Lekeitio

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el 13 de febrero de 2003, aprobó inicialmente el nuevo texto de modificación de los estatutos del Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE).

En ese mismo acuerdo se aprobó, además, publicar el anuncio referente a dicho acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y conceder un plazo de 30 días para la presentación de alegaciones en su contra. En caso de que no se presentara ninguna alegación, el nuevo texto de modificación de los estatutos del Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE) quedaría definitivamente aprobado.

El anuncio se publicó el 7 de marzo de 2003 en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y, dado que transcurrido dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación, ha quedado definitivamente aprobado el nuevo texto de modificación de los estatutos del Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE).

### ORGANISMO MUNICIPAL DE CULTURA DE LEKEITIO (ESTATUTOS)

CAPITULO I

**OBJETIVOS, NATURALEZA Y FUNCIONAMIENTO**

**Artículo 1**

El Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE) nace con estructura de Organismo Municipal Autónomo de Servicios, y ésa será su razón administrativa. Se basa en las siguientes Leyes y Decretos para tomar dicha estructura:

— Lo dispuesto en los artículos 85 y 86 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.
— Lo dispuesto en los artículos 85 y siguientes del Decreto de 17 de junio de 1955, por el que se aprueba el Reglamento de Servicios de las Entidades Locales.

El Organismo tiene identidad jurídica propia y total capacidad legal de actuación.

**Artículo 2**

LUKE tiene los siguientes objetivos generales:

1. Promover la actividad cultural en el municipio de Lekeitio. Para ello, coordinará todos los esfuerzos y actividades sin perjuicio de aquellas competencias que por ley corresponden al Ayuntamiento.

2. Tramitar y gestionar todas aquellas ayudas destinadas a la financiación de actividades culturales.

**Artículo 3**

LUKE se regirá por lo establecido en estos estatutos y bajo la protección del Ayuntamiento de Lekeitio. El Ayuntamiento

duko du estatutu hauetan datozen helburuak LUKEk betetzen dituela. Hori egingo da LUKEko gobernu organoei (Zuzendaritza Batzordeari eta Buruari) aitortzen zaien autonomiaren kalterik gabe.

### 4. artikulua

LUKEk honelako aktibitateak burutzeko gaitasuna du, 2. artikuluko helburuak betetzeko:

1. Kultur instalazioak eraikitzeko eta jabetzan eskuratzeko; edota alokairuz erabiltzeko.

2. Udalak utzitako instalazioak egokitzeko, kontserbatzeko eta administratzeko, estatutu hauen 2. artikuluan ezarritako helburuak betetzeko utziak.

3. Instalazio horien erabilera koordinatzetzeko, eta herri mailan egiten diren kultur aktibitateak programatzeko.

4. LUKEren helburuak betetzeko behar diren langileak kontratatzeko, teknikoak zein administratiboak.

5. Hitzarmenak edo kontratuak izenpetzeko, publikoak zein pribatuak, erakundearen helburuak betetzeko behar diren ondasun higiezin edo higigarriak erosteko eta administratzeko.

6. LUKEren zerbitzu guztiak antolatzeko.

7. Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak eskatzeko eta onartzeko, direla Estatuarenak, Eusko Jaurlaritzarenak, Herri Erakundeenak eta partikularrenak.

8. Altxortegiko kontratuak egiteko eta maileguak kontzertatzeko, erakundearen helburuak egokien bete ahal izateko. Horiez gainera, agintari administratibo, gobernatzaile eta judizialetan edonolako erreklamazioak eta ekintzak aurkezteko gaitasuna ere badu, bere jarduketa-esparruaren barruan..

II. KAPITULUA

## GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

### 5. artikulua

Zuzendaritza Batzordea kargutuko da LUKEren gobernuaz eta administrazioaz.

### 6. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak bereganatuko ditu LUKEren gobernua eta gestioa eta honako partaide hauek osatuko dute:

Hitzarekin eta botoarekin:

1. Burua: Alkatea edo berak ordezko izendatzen duena.
2. Kideak:
   — Udalean ordezkariak dituzten alderdi politiko guztietako kide bana.
   — Herriko kultur taldeetako hiru kide.

Hitzarekin baina botorik gabe:

3. Idazkaria: LUKEko koordinatzailea.
4. Aholkulari juridikoa: Udal idazkaria edo berak ordezko izendatzen duena.
5. Aholkulari ekonomikoa: Udal kontuhartzailea edo berak ordezko izendatzen duena.

### 7. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak honako konpetentziak ditu:

1. Egitasmo orokorrak eta aldizkako programak egitea eta onartzea, udaleko Osoko Bilkurak berronartu beharko dituenak.

2. LUKEren interesak ordezkatzea eta instalazioak, kultur intereseko zentroak eta antzekoak zaintzea, bere jarduketa esparruan.

3. Edonolako ekintzak eta kontratuak egitea eta baimentzea, bere jarduketa esparruan.

4. Edonolako kontu korronteak eta aurrezkikoak irekitzea eta zarratzea, edozein banketxetan egindakoak.

observará el cumplimiento, por parte del LUKE, de los objetivos contemplados en estos estatutos. Todo ello sin perjuicio de la capacidad y autonomía que se concede a los órganos de Gobierno del propio LUKE (Junta Directiva y Presidencia).

### Artículo 4

Para conseguir los objetivos fijados en el artículo 2, el LUKE tiene capacidad para desarrollar las siguientes actividades:

1. Construir, asumir la propiedad o alquilar instalaciones culturales.

2. Adecuar, conservar y administrar aquellas instalaciones cedidas por el Ayuntamiento con la intención de desarrollar los objetivos fijados en el artículo 2.

3. Coordinar el uso de las instalaciones y programar las actividades culturales que se desarrollen en el municipio.

4. Contratar el personal técnico y administrativo que fuera necesario para la consecución de los fines del LUKE.

5. Formalizar y firmar contratos o convenios de carácter público y privado, así como comprar y administrar bienes muebles e inmuebles con la intención de conseguir los objetivos del organismo.

6. Organizar todos los servicios del LUKE.

7. Aceptar y solicitar todo tipo de ayudas y/o subvenciones, sean del Estado, del Gobierno Vasco u otros organismos públicos o privados.

8. Concertar aquellos contratos de tesorería y préstamos que fueran necesarios para el mejor cumplimiento de los objetivos fijados. Además, dentro de su ámbito de actuación tiene capacidad para promover cualquier acción y reclamación ante agentes judiciales, administrativos o ejecutivos.

CAPITULO II

## ADMINISTRACION Y GOBIERNO

### Artículo 5

El Gobierno y la Administración del LUKE será responsabilidad de la Junta Directiva.

### Artículo 6

Corresponde a la Junta Directiva la gestión y gobierno del LUKE con arreglo a la siguiente composición:

Con voz y voto:

1. Presidencia: La Alcaldía o persona en quien ella delegue.
2. Componentes:
   — Un o una representante por cada grupo político representado en el Ayuntamiento.
   — Tres representantes de los grupos y asociaciones culturales del municipio.

Con voz y sin voto:

3. Secretaría: Persona que coordine el LUKE.
4. Asesoría jurídica: El o la secretaria municipal, o persona en quien delegue.
5. Asesoría económica: El o la interventora municipal, o persona en quien delegue.

### Artículo 7

La Junta Directiva tiene las siguientes competencias:

1. Elaborar y aprobar los programas generales y las programaciones temporales que deberán de ser refrendados por el Pleno del Ayuntamiento.

2. En el ámbito de sus competencias, representar los intereses del LUKE y mantener y cuidar las instalaciones y centros de interés cultural o semejantes.

3. En su ámbito de actuación, autorizar y realizar cualquier tipo de contrato y acción.

4. Abrir y cerrar cualquier tipo de cuenta corriente o de ahorro con cualquier banco o caja.

5. Edonolako erreklamazioak eta ekintzak aurkeztea agintari administratibo, gobernatzaile eta judizialetan, bere jarduketa esparruan.

6. Langileen zerrendak, teknikoak zein administratiboak, egitea eta udaleko Osoko Bilkuraren onespenera aurkeztea.

7. Urtean egindako aktibitateen eta gestioen txostena egitea eta onartzea eta udalaren Osoko Batzarraldiaren onespenera aurkeztea.

8. Instalazioen erabiltzaileek egiten dituzten hutsegiteak zigortzea.

9. LUKEren aurrekontua egitea eta onartzea.

10. Udalari edo LUKEko Buruari ez dagozkien gainerako funtzio eta konpetentzia guztiak.

**8. artikulua**

LUKEko buruak honako konpetentziak ditu:

1. LUKE legez ordezkatzea edonolako Agintari eta Erakundeetan.

2. LUKEko Zuzendaritza Batzordea batzarretara deitzea, buru izatea eta batzarraldia etetea.

3. Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak burutzea eta betearaztea.

4. Zuzendaritza Batzordeak onartutako aktibitateak eta zerbitzuak antolatzea, programatzea eta zuzentzea, eta erabakiok egoki betetzen direla zaintzea.

5. Ordainketa guztiak agintzea, bai aurrekontuetan espreski kontsignatuta daudenak, baita Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakien bidezkoak ere. Presa edo premia larriko gastu txikiak ere ordaintzeko ahalmena du, instalazio eta zerbitzuetan egin behar direnak.

**9. artikulua**

Lekeitioko Udaleko alkateak izendatuko du LUKEko eta Zuzendaritza Batzordeko buruordea. Honek burua ordeztuko du, hutsik, kanpoan edo gaixo dagoenean, baita buruak buruordearen esku uzten dituen zereginetan ere.

**10. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeko partaideek kargua utziko dute honako kasuetan:

1. Norberak hala eskatzen duenean.

2. Kultur taldekoen artean izendatuen kasuan: Kargua uzten dutenean.

3. Udalak izendatutakoen kasuan: lau urteko epea igarotzen denean; edo arinago, baldin eta horrelako erabakia hartzera derrigortzen duen arrazoi larriren bat balego.

**11. artikulua**

Zuzendaritza Batzordea bi hiletik behin batuko da gutxienean, baita buruak premiazko uzten duenean edo batzordeko partaidetatik herenak idatziz eskatzen duenean. Deialdia 48 orduko aurretiaz egingo da eta eguneko aztergaia lotuko zaio.

**12. artikulua**

Zuzendaritza Batzordearen erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketaren bat balego, batzordeko buruak apurtuko luke berdinketa, kalitatezko botoaz.

Batzarrak lehen deialdian egingo dira, baldin eta batzordean botoa duten partaideen gehiengo absolutua bertaratzen bada. Eta bigarren deialdian, ordubete beranduago, gehiengo hori lortzen ez bada. Bigarren kasuan nahikoa litzateke burua, idazkaria eta hiru kide bertaratzea.

**13. artikulua**

Zuzendaritza Batzordearen erabakien kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lekeitioko Udalbatzari, erabakia hartzen

5. Dentro de su ámbito de actuación, promover cualquier acción y reclamación ante agentes judiciales, administrativos o ejecutivos.

6. Elaborar la relación de puestos de trabajo, técnicos y administrativos para su posterior presentación a aprobación plenaria.

7. Elaborar y aprobar la memoria de actividades y gestión anuales para su posterior presentación a aprobación plenaria.

8. Sancionar las faltas cometidas por quienes utilicen las instalaciones.

9. Elaborar y aprobar los presupuestos del LUKE.

10. Todas las demás funciones y competencias que no correspondan al Ayuntamiento o a la Presidencia del LUKE.

**Artículo 8**

La presidencia del LUKE tiene las siguientes competencias:

1. Representar al LUKE ante cualquier autoridad u organismo.

2. Convocar, presidir y dar por finalizadas las sesiones de la Junta Directiva del LUKE.

3. Desarrollar y cumplimentar las decisiones tomadas por la Junta Directiva.

4. Organizar, programar y dirigir las actividades y servicios aprobados por la Junta Directiva; además, velará por su adecuado desarrollo.

5. Ordenar todos los pagos consignados expresamente en los presupuestos, así como aquellos surgidos por decisiones de la Junta Directiva. Asimismo, tendrá capacidad para autorizar pequeños gastos de urgencia correspondientes a los servicios e instalaciones.

**Artículo 9**

Corresponde a la Alcaldía de Lekeitio designar a las personas que en casos de vacante, enfermedad o ausencia sustituyan a la Presidencia de la Junta Directiva del LUKE. La persona designada sustituirá a la presidencia y también desarrollará sus funciones.

**Artículo 10**

Las personas que componen la Junta Directiva dejarán su cargo en los siguientes casos.

1. Cuando lo soliciten personalmente.

2. La representación de los grupos culturales: Cuando cesen en su cargo.

3. La representación del Ayuntamiento: Tras cuatro años, o en un plazo más corto si se producen circunstancias graves que así lo aconsejen.

**Artículo 11**

La Junta Directiva se reunirá al menos una vez cada dos meses. Asimismo, se reunirá cuando, por razones de urgencia, lo requiera la Presidencia o cuando un tercio de los y las componentes lo soliciten por escrito. La convocatoria se deberá realizar con 48 horas de antelación e irá acompañada del respectivo orden del día.

**Artículo 12**

Las decisiones de la Junta Directiva se tomarán por mayoría y, en caso de empate, el voto de calidad de la Presidencia decidirá la votación.

Las sesiones se celebrarán en primera convocatoria, siempre y cuando cuenten con la presencia de la mayoría absoluta de las y los miembros con derecho a voto. En caso de no poder celebrarse en esas condiciones, se celebrará en segunda convocatoria una hora más tarde y para ello será suficiente que acudan quienes actúen como presidente, secretario o secretaria y tres representantes.

**Artículo 13**

Contra las decisiones tomadas por la Junta Directiva se podrá presentar recurso ante la Corporación municipal de Lekeitio en el

denetik hasi eta hamabost (15) eguneko epean. Eta udalak errekurtsoaren gainean hartzen duen erabakiaren kontra errekurtsoa aurkez daiteke dagokien Epaitegietan.

**14. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu LUKEk gestionatzen dituen eraikinen erabilerari buruzko araudiak; eta araudiok betearazteko ahalmena du.

**15. artikulua**

Zuzendaritza Batzordearen menpe honako azpibatzordeak geratuko dira: Kultur Ekintzen Azpibatzordea eta Jaien Azpibatzordea.

**16. artikulua**

Kultur Ekintzen azpibatzordea arduratuko da herrian egiten diren kultur ekintzak antolatzeaz; eta Jaien azpibatzordea, berriz, herriko jaiak antolatzeaz.

**17. artikulua**

Kultur Ekintzen eta Jaien azpibatzordeek bete egin beharko dute udal batzorde informatiboei ezarritako araudia.

III. KAPITULUA

**LUKEK GESTIONATUKO DITUEN ZERBITZUAK ETA ERAIKINAK**

**18. artikulua**

Honakoak izango dira LUKEk gestionatuko dituen zerbitzuak:

18.1. Kultur koordinazioa, animazioa eta eraikinak zaintzea.

18.2. Udal Liburutegia.
18.3. Gazte Bulegoa.
18.4. Udal Musika Banda.

**19. artikulua**

Honakoak, berriz, eraikinak:

19.1. Kultur Etxea.
19.2. Nautika Eskola.
19.3. «Barandiaran» aretoa.

IV. KAPITULUA

**LANGILEAK**

**20. artikulua**

LUKEk behar dituen langileak kontratatuko ditu. Eta Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Lekeitioko Udalaren Osoko Bilkurak onartuko ditu zenbat langile kontratatuko diren, horien maila eta funtzioak.

Langileen ordainsariak LUKEren Aurrekontuetan agertuko dira.

**21. artikulua**

Honako hauek osatuko dute LUKEko langileen zerrenda:

1. LUKEko zerbitzuak beteko dituzten Lekeitioko Udaleko funtzionarioak edo lan hitzarmeneko langileak.

2. LUKEk berak kontratatutako langileak.

V. KAPITULUA

**ARAUBIDE EKONOMIKOA**

**22. artikulua**

LUKEk honako baliabideak izango ditu, bere helburuak bete ahal izateko:

1. Udal Aurrekontuetan ezarritako diru izendapena, jarritako helburuak lortzeko.

plazo de 15 días desde que se tomó la decisión. Asimismo, contra la decisión que al respecto tome el Ayuntamiento se podrá presentar recurso ante el tribunal correspondiente.

**Artículo 14**

La Junta directiva aprobará el Reglamento de Utilización de edificios gestionados por el LUKE. El Reglamento tiene capacidad ejecutiva y tendrá capacidad para hacer cumplir dicho Reglamento.

**Artículo 15**

Bajo la responsabilidad de la Junta Directiva funcionarán las siguientes subcomisiones: Subcomisión de Actividades Culturales y Subcomisión de Fiestas.

**Artículo 16**

La Subcomisión de Actividades Culturales se encargará de la organización de los diferentes actos culturales que se desarrollen en el municipio. La Subcomisión de Fiestas organizará las fiestas del municipio.

**Artículo 17**

Las subcomisiones de actividades culturales y fiestas deben de cumplir el reglamento fijado para las comisiones informativas municipales.

CAPITULO III

**EDIFICIOS Y SERVICIOS GESTIONADOS POR EL LUKE**

**Artículo 18**

El LUKE gestionará los siguientes servicios:

18.1. Coordinación cultural, animación y mantenimiento de edificios.
18.2. Biblioteca Municipal.
18.3. Oficina Información Juvenil.
18.4. Banda Municipal de Música.

**Artículo 19**

Y los siguientes edificios:

19.1. Casa de Cultura.
19.2. Escuela Náutica.
19.3. La Sala «Barandiaran».

CAPITULO IV

**PERSONAL**

**Artículo 20**

El LUKE contratará al personal que sea necesario. A propuesta de la Junta Directiva, el Pleno del Ayuntamiento de Lekeitio determinará cuántos trabajadores se contratarán, así como sus niveles y funciones.

Los sueldos correspondientes al personal se reflejarán en los presupuestos del LUKE.

**Artículo 21**

La relación de puestos de trabajo del LUKE se compone con:

1. El Funcionariado y personal laboral del Ayuntamiento de Lekeitio que cubra servicios del LUKE.

2. El personal contratado por el propio LUKE.

CAPITULO V

**REGIMEN ECONOMICO**

**Artículo 22**

El LUKE dispondrá de los siguientes recursos para cumplir sus funciones:

1. La cantidad consignada en el presupuesto municipal para desarrollar esos objetivos.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Autonomia Erkidegoak zuzen ditzaketen dirulaguntzak.

3. Erakunde publiko edo pribatuek edota edonolako pertsona juridiko edo fisikoek zuzen ditzaketen edonolako laguntzak.

4. LUKEren aktibitate zehatzek sor ditzaketen edonolako diru sarrerak.

5. LUKEren izenean eman daitezken dohaintza eta legatuak.

**23. artikulua**

LUKEren sarrerak eta gastuak kontuhartu eta kontabilizatuko ditu Lekekitioko Udaleko sail ekonomikoak. Sail honek, gainera, urtero kontuak agertuko ditu eta Lekeitioko Udalaren onarpenera aurkeztuko ditu.

**24. artikulua**

LUKEk duen dirua kontu korronte edo bankarietan sartuko da, Zuzendaritza Batzordeak izendatuko dituen instituzioetan.

**25. artikulua**

Gastuak beti ordainduko dira indarrean dagoen ordaintzeko arauen arabera.

2. Las ayudas que se puedan recibir directamente desde la Diputación Foral de Bizkaia y la Comunidad Autónoma.

3. Las ayudas que se puedan recibir directamente desde otros organismos públicos y privados, o de cualquier persona física o jurídica.

4. Aquellos ingresos que puedan originarse por las actividades del LUKE.

5. Aquellos legados y donaciones que puedan hacerse a favor del LUKE.

**Artículo 23**

El Area Económica del Ayuntamiento de Lekeitio realizará la intervención y contabilización de los gastos e ingresos del LUKE. Además, este área deberá de presentar los resultados anuales para su posterior aprobación por el Ayuntamiento de Lekeitio.

**Artículo 24**

El dinero correspondiente al LUKE estará depositado en la cuenta corriente o bancaria de la institución que haya aprobado la Junta Directiva.

**Artículo 25**

La disposición y realización del gasto se realizará con arreglo a la normativa vigente.

VI. KAPITULUA

**ONDAREA**

**26. artikulua**

LUKEren ondasuna honako hauek osatuko dute:

— Lekeitioko Udalak LUKEri utziko dizkionak, bere helburuak betetzeko. Eta

— LUKEk bere helburu propioak betetzeko lortzen dituztenak.

**27. artikulua**

LUKEk, Zuzendaritza Batzordearen bidez, Lekeitioko Udalari eska liezaioke udalaren jabetzako ondasunak bere izenean atxikitzea. Horrela bada, LUKEk ez du ondasun horien jabetzarik lortuko, edukiera soila baizik, eta atxikipenak zehaztuko dituen helburuetan bakarrik erabil ditzake.

**28. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeak Lekeitioko Udaleko Osoko Bilkuraren onespenera aurkeztuko ditu atxikipenari buruzko erabakiak eta LUKEk, agertutako arrazoien gaineko diskreziozko neurriak ikusita, erabakia hartuko du. Ondasunek izango dituzten helburuak ere agertuko ditu.

Atxikipena baliorik gabe geratuko da eta ondasunen erabilera Udalari itzuliko zaio, honelako bi kasuetan:

a) Atxikitako ondasunak ez badira aurrikusitako zereginetan erabiltzen atxikipen-erabakian ezarritako epean.

b) Ondasunei beste erabileraren bat ematen bazaie, nahiz eta hasieran eta denbora batean ezarritako zereginetan erabili.

Udalak, gainera, eskubidea izango du, izan diren kalte eta hondamenen balioa LUKEri eskatzeko.

**29. artikulua**

Lekeitioko Udalari dagozkio, Kontuhartzailetzaren bidez, LUKEri atxikitako ondasunak utzitako helburuetan erabiltzen direla fiskalizatzea eta ondasunok berriro Udalera bueltatzeko tramiteak hastea, kasura baletor.

**30. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeak jasota eta eguneratuta izango du, dituen ondasunen alta eta bajei buruzko inbentarioa eta udalaren Osoko Bilkuraren onespenera aurkeztuko du urtero.

CAPITULO VI

**PATRIMONIO**

**Artículo 26**

El patrimonio del LUKE lo constituyen:

— Los bienes cedidos por el Ayuntamiento de Lekeitio para desarrollar sus objetivos.

— Los conseguidos por el propio LUKE para desarrollar sus objetivos.

**Artículo 27**

El LUKE, por medio de la Junta Directiva, podrá solicitar del Ayuntamiento de Lekeitio que éste mantenga la propiedad del bien. En ese caso, el LUKE no tendrá la propiedad del bien sino únicamente su tenencia, y sólo podrá ser utilizado para aquellos objetivos fijados en la decisión de afección de la propiedad.

**Artículo 28**

La Junta Directiva presentará al Pleno para su aprobación los acuerdos relativos a la afección de la propiedad. El LUKE tomará una decisión en función de las medidas de discreción relativas a las razones aportadas. Asimismo, se señalarán los objetivos a que se destina ese patrimonio.

El acuerdo de afección quedará sin valor y la utilización del patrimonio volverá al Ayuntamiento en los siguientes casos:

a) Cuando el bien retenido no sea utilizado para el uso previsto y en los plazos indicados en la decisión de afección.

b) Cuando el bien sea utilizado con un destino diferente al previsto, aunque ése haya sido realmente su uso original.

Además, el Ayuntamiento tendrá derecho a exigir al LUKE el resarcimiento de los daños y perjuicios originados.

**Artículo 29**

Corresponde al Ayuntamiento de Lekeitio, a través de su departamento de intervención, el control sobre el uso del patrimonio afectado al LUKE para el logro de los objetivos propuestos y, en su caso, iniciar los trámites necesarios para su devolución al Ayuntamiento.

**Artículo 30**

La Junta Directiva mantendrá al día el inventario de patrimonio con sus respectivas altas y bajas y lo presentará anualmente para su aprobación al Pleno del Ayuntamiento.

VII. KAPITULUA

**DEUSEZTAPENA ETA LIKIDAZIOA**

**31. artikulua**

LUKE honako kasuetan geratuko da deuseztuta:

1. Zuzendaritza Batzordeak hala eskatzen badu. Kasu honetan, erabakia aho batez onartuko da eta udalaren Osoko Bilkurak berronartuko du, botoen gehiengo absolutuaz.

2. Udalaren Osoko Bilkurak ofizioz erabakitzen badu. Kasu honetan derrigorrezkoa da Udalbatzaren bi herenak baiezkoa ematea.

**32. artikulua**

LUKE deuseztatzen bada, udalaren esku geratuko dira erakundeari atxikitako ondasunak

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Bakarra**

LUKE lehen aldiz osatzen denean, ez dute lau urteko iraupena beteko udalak izendatutako kideek, Udal Agintaldiari geratuko zaion denbora baizik.

Lekeition, 2003ko apirilaren 8an.—Alkatea, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.046)

CAPITULO VII

**DISOLUCION Y LIQUIDACION**

**Artículo 31**

El LUKE será disuelto en los siguientes casos:

1. Cuando lo solicite la Junta Directiva. En esos casos, la decisión será tomada por unanimidad y deberá ser refrendada por el Pleno del Ayuntamiento por mayoría absoluta de los votos emitidos.

2. Por decisión de oficio del Pleno del Ayuntamiento, en cuyo caso será necesario el voto de dos terceras partes de la Corporación.

**Artículo 32**

En caso de disolución del LUKE, los bienes afectados a éste quedarán a disposición del Ayuntamiento.

**DISPOSICION TRANSITORIA**

**Unica**

La representación municipal en la primera composición del LUKE no permanecerá en su cargo durante 4 años, sino aquéllos que falten para completar el mandato municipal.

En Lekeitio, a 8 de abril de 2003.—La Alcaldesa, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.046)

•

IRAGARKIA

Udalbatza Osoak, 2003ko otsailaren 13an egindako aparteko batzarrean, onartu zuen hasierako onarpena ematea Kulturgintzan ari diren talde edo elkarteei zuzendutako dirulaguntzai eta udal baliabideak erabiltzeari buruzko araudiari hasierako onarpena ematea.

Bertan akorduan onartu zen gainera, honen konturako iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»en argitaratzea, 30 laneguneko epea emanez herritarrek beronen kontrako azalpenak egin zezaten eta ez balitz inolako alegaziorik aurkeztuko LUKEko estatutuak aldatzeko testu berria behin-betiko onartuta geldituko zela.

Iragarkia 2003ko martxoaren 7ko «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»en argitaratu zen eta aipatutako epea iragan ondoren ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, Kulturgintzan ari diren talde edo elkarteei zuzendutako dirulaguntzei eta udal baliabideak erabiltzeari buruzko araudia behin-betiko onartuta geldituda.

**ARAUDIA**

KULTURGINTZAN ARI DIREN TALDE EDO ELKARTEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEI ETA UDAL BALIABIDEAK ERABILTZEARI BURUZKOA

*Hitzaurrea*

Lekeitioko Udalak aspalditik somatu izan du Araudi baten premia, herrian kulturgintzan ari diren talde eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzen gaineko baldintzak zehazteko, kultur ekintzak antolatzeko lanetan udalaren parte hartzea argitzeko, udal lokalen erabilera arautzeko, etab.

Lekeitioko Udalak egoki ikusi du Kultur Etxea inauguratzera goazen une hau aprobetxatzea honelako Araudi bati argia emateko; eta horrek hainbat erabaki hartzera derrigortzen gaitu.

Araudiak sei urtetan indarrean iraungo du; horren ondoren, berritzeko prozesua zabalduko da kultur talde guztiekin batera, hala badagokio.

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el 13 de febrero de 2003, aprobó inicialmente el Reglamento referente a las ayudas y la posibilidad de utilizar los recursos municipales por parte de los grupos y organismos que trabajen en el entorno de la cultura.

En ese mismo acuerdo se aprobó, además, publicar el anuncio referente a dicho acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y conceder un plazo de 30 días para la presentación de alegaciones en su contra. En caso de que no se presentara ninguna alegación, nuevo texto de modificación de los estatutos del Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE) quedaría definitivamente aprobado.

El anuncio se publicó el 7 de marzo de 2003 en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y, dado que transcurrido dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación, ha quedado definitivamente aprobada el reglamento referente a las ayudas y la posibilidad de utilizar los recursos municipales por parte de los grupos y organismos que trabajen en el entorno de la cultura.

**REGLAMENTO**

REGULADORA DE LA UTILIZACION DE RECURSOS MUNICIPALES Y AYUDAS A LOS GRUPOS Y ASOCIACIONES QUE TRABAJAN EN EL AMBITO DE LA CULTURA

*Prólogo*

Hace ya tiempo que el Ayuntamiento de Lekeitio ha detectado la necesidad de dotarse de un reglamento que regule y determine las condiciones de las ayudas dirigidas a los grupos y asociaciones que trabajan en el ámbito de la cultura, así como clarificar la participación municipal en la organización de las actividades y la regularización del uso de locales, etc.

El Ayuntamiento de Lekeitio ha considerado que la próxima inauguración de la Casa de Cultura de Lekeitio es el momento adecuado para poner en marcha ese reglamento, y por ello se ha visto en la obligación de tomar una serie decisiones.

El reglamento permanecerá en vigor durante seis años. Transcurridos éstos, si fuera necesario se abriría un proceso de renovación en el que participarían todos los grupos culturales.